

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

**51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 19 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (III)

Angel Larrea Beobide

Inperio espainiarraren azken lurrak galdu ostean, 1898tik aurrera, Katalunia arazo politiko nagusia biurtu zan Madrilgo gobernuko agintarien-tzat, an gertatzen ziralako auzi arriskutsu bi oneek: “separatismoa” eta langileriaren aktibitate erradikala. F. Cambó-ren proposamenaren arabera, zera egin bear zan: katalanen presentzia politikoa areagotu Madrilan, gobernuaren inguruan, Espainiak bear zitu- en erreformak eta politikak aurrera atera aal izate-ko. Baina oztopoak oso andiak izan ziran: alde ba- tetik gizartearen sektore boteretsu kontserbadoreak (lurjaube andiak, Eleiza, Armada...); eta bestetik, aktibista erradikalak eta terroristen ekintza bortitzak. Azkenean, aitaturako politiko kataluniarraren propo- samenak porrot egin eban, eta egoera naastu orretan Miguel Primo de Rivera, Kataluniako kapitan jene- ralak Diktadura militarra ezarri eban Espainia osoan (1923-1930), ain justu Europako politikan komunis- moa eta batez be faxismoa gorantza joaten asi ziran momentuan.


1931ko udabarian egindako udal auteskudeetan indar errepublikanoak atera ziran irabazle. Erregeak alde egin bear izan eban eta Konstituzino barria ezarri zan. Momentu politiko itxaropentsua izan zan, baina arazo andiak be baziran, esate baterako, nekazarien lurren auzia. Errepublikanismoa zabaldua egoan gizarte kataluniarrean, baita autonomia politikoa lortzeko gogoia be bai. Egoera orretan, 1932an, Autonomia Estatutua onartu egin zan Katalunian, Espainian leena. ERC

(Esquerra Republicana de Catalunya) alderdi politikoko buruzagiek protagonismoa artu eban orduan, Francesc Maciá-k “Estat Catalá” aldarrikatu ebalarik, eta 1934tik aurrera Generalitateko presidentea zanak, Lluís Companys-ek Errepublika Kataluniarra proklamatu eban, beti be “Iberiar Errepublikaren Federazioa”ren barruan (ikus argazkia). Ausardi politiko onek ondorioak ekarri eutsazan, Gerra Zibila amaitu ostean, 1940. urtean ain zuzen be, Montjuic-eko gaz-

teluan urte batzuk preso egonda gero, Companys-en fusilamendua agindu eban Francok. Ondoren, ERCko beste politiko batek artu eban aren kargua, exilioan jada, Josep Tarradellas presidentea. Francok eta tropa nazionalak Gerra Zibila asi eta irabazi aurretiko tartean, esperientzia guztiz berezia gertatu zan Espainia errepublikarrean eta, arean indartsuago, Katalunian: Anarko-sindikalismoaren prozesu iraultzailea: fabriken, propietadeen eta nekazarien esplotazioen kolektibizazioa.

Diktadura frankistaren denporan, oposiziño politiko demokratiko katalana bizirik mantendu zan, exilioan eta klandestinidadetan, leen aitaturako ERC, PSC eta PSUC ezkertiarrek, Unió Democrática eskoitiarra, eta beste alderdi eskoitar sortu barria, Convergència Democràtica de Catalunya, Jordi Pujolen agintaritzapean. Franco il eta gero, “Trantsiziñoa”ren urteetan, 1978ko Konstituzinoaren testua idatzi ebenen zazpi kideen artean, politiko kataluniar bi izan ziran: Miquel Roca,





Miquel Roca eta Jordi Solé Tura.



Convergencia i Unió koalizinokoa, eta Jordi Solé Tura, PSUCekoa. Protagonismo katalandarrak urrengo amarkadetan be iraun eban espainiar politikan. 2003-2010. urteen artean, Generalitateko presidente sozialisten garaian, Estatutu barriaren aldeko apustua egin zan, baina J. M^a Aznar, gobernu zentralako presidente eskoitiarrak, geiengo parlamentarioa eukala aprobetxatuz, Autonomien garapenaren aurkako politikeari emon eutsan asiera: konpetentziak ez transferidu; presiño politikoak egin, Tribunal Konstituzionalaren aurrean oztopo legalak jartzeko. Ondorioz, Kataluniako Estatutuari ezarritako mugak eta errekurso judizialak “Procés” deitutako mobimendu sozio-politiko soberanista eta independentista eragin eben 2009an asi, 2012an arindu eta gaur egun ezagututen dogun egoera korapilatsura arte.

Ondorioa: 1936-1939ko Gerra Zibilak eta osteko diktadura luzeak (1939-1975), au da, frankismoak arrakala sakona zabaldu eben gizartean. Aren amaieran, kultura politiko demokratikoaren utsunea nabaria izan zan, batez be potere eta negozioetatik gertu mobiduten ziran eskuin aldeko talde eta politikoaren artean: Espainia mailan, M. Fraga Iribarne Alianza Popular alderdia sortu eban, egun Partido Popular (PP) dana; eta Katalunian, J. Pujol-ek Convergencia Democrática de Catalunya, egun PDeCat deitzen dana. Biek, alderdi politikoak izateaz gain, interes ekonomiko-



komertzialak eta korrupzioaren edo ustelkeriaren inguruko sareak be euki dabez antolatuta euren egituretan. Arazo onek sortu dauen krisiak kalte andia egin deutso sistema politikoari: Kataluniaren kasuan, krisian jarri eban “Convergencia”, gobernu autonomoa eta geiengo politikoak galduz eta, azkenean, desagertuz (bere espazio politiko gorago aitatu dan PDeCat-ek bete egiten dau); eta Espainian, krisian jarri dau PPK eta PSOEk 1978tik aurrera espainiar Gortetan mantendu daben bipartidismoa.



Azken urteotan eszenatoki politikoaren aldaketa garrantzitsua ikusi dogu: alderdi barriak, PPri Ciudadanos agertu jako eskuineko espazio politikoan; eta PSOERI Podemos, ezker aldean. Katalunian, PPak galdu egin dau indar politiko Ciudadanos alderdiaren mesedetan, eta PDeCat-ek be galdu egin dau pisu politiko Esquerra Republicana de Catalunya alderdiaren mesedetan. Bestalde, bloke konstituzionalistak (PP, PSOE eta Ciudadanos) ez dau erakutsi edo ez dauka erantzun barririk gaurko eguneko eztabaida politikoak maai gainean dituen erronka nagusiei urteera emoteko: orma konstituzionalak, Monarkiarena besteak beste, korrupzioaren arazoa, eta lurralde autonomikoen erdua, Kataluniako auzia barruan dalarik. Baliteke une au ziklo historiko baten amaiera izatea, Espainiari gertatu jakon moduan Inperioaren azken koloniak galdu ebazanean 1898. urtean Politikearen ordua da orain. Pentsamentu ezbardinak, au da, nazionalismo espainiarraren eta katalanismoaren arteko dialogoa eta akordioak edo “paktismoaren kultura” ezinbestekoak dira.